

## 22/14 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea  
Begoña Cabria  
Lierni Lizaso  
Mari Tere Ojanguren  
Idoia Pujana  
Eduardo Ubieta  
Lourdes Villardón  
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2022ko azaroaren 24ko bideokonferenziaz eginiko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **EAEko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte-**

**Plastiko eta Diseinuko, Maisu-maistren eta iraungi beharreko Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuaren deialdia egiten duen agindu-proiektuari.**

### I.- AURREKARIAK

Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeak seigarren xedapen gehigarrian ezartzen ditu iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdietan jarraitu beharreko irizpideak. Hala, ezartzen du administrazio publikoek, salbuespen gisa eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 61.6 eta 7 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, lehiaketa-sistemaren bidez deituko dituztela, 2.1 artikuluan ezarritako baldintzak beteta, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen aldi baterako etenik gabe okupatuta egondako plazak. Aurreikuspen horri lege beraren zortzigarren xedapen gehigarrian jasotakoa gehitu behar zaio, eta, horrez gain, seigarren xedapen gehigarrian jasotako egonkortze-prozesuek beren deialdietan sartuko dituzte izaera estrukturaleko lanpostu hutsak, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen izaera horretako harremana duten langileek aldi baterako betetzen dituztenak.

2022ko irailaren 22koa, Hezkuntzako sailburuaren Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musikako eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen, Maisu-maistren eta desagertzear dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egin zen, dena den, Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten Kidego berrirako prozesu bera deitzeke geratu zen, Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren arabera sortu zena Lanbide Heziketaren eremuan irakasten duten irakasleen espezialitateak berrantolatzearen ondorioz, eta duela gutxi erregelamendu

bidez garatu dena unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako funtzio publikoaren oinarritzko esparru komuna bermatzeko oinarritzko alderdietan, urriaren 4ko 800/2022 Errege Dekretuaren arabera (2022/10/05eko BOE).

Errege-dekretu horrek aldatu egin du Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua) aipatzen dituen irakaskuntza-kidegoetan sartzeko, espezialitate berriak eskuratzeko eta eskuratzeko Erregelamendua, eta zuzenean eragiten dio prozesu horri.

Adierazitako berrantolaketaren ondorioz, Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten Kidego berri horretan sartu dira Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoari atxikita zeuden espezialitateak (kidego hori desagertzeaz dago).

Deialdi hau apirilaren 12ko 270/2022 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautzen da. Errege Dekretu horrek 276/2007 Errege Dekretua aldatzen du, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aipatzen dituen irakaskuntza-kidegoetan sartu, kidego horietara iritsi eta espezialitate berriak eskuratzeari buruzko erregelamendua onartzen duena eta aipatutako legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrean jasotako sartzeko behin-behineko erregimena arautzen duena, eta salbuespenezko deialdi-mota horri buruzko xedapen iragankor bat gehitzen du.

## **II EDUKIA**

Agindu-proiektuak 2 artikulua, azken xedapen bat eta eranskin bat ditu.

Lehenengo artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten Kidegoan iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozedurarako deialdia egiten du.

2. artikulua lehiaketa arautuko duten oinarriak onartzen ditu.

Azken xedapena berraztertze errekurtsoei buruzkoa da.

Eranskinak merezimenduen baremoa jasotzen ditu.

Oinarriak 9 kapitulutan antolatuta daude. I. kapituluan, oinarri orokorretan, xedea, plazak eta aplikatu beharreko araudia jasotzen dira.

Gainerako kapituluek titulu hauek dituzte:

- II. Parte hartzeko baldintzak
- III. Parte hartzeko eskabidea eta dokumentazioa
- IV. Onartutako eta baztertutako izangaiak
- V. Hautaketa-organoak
- VI. Merezimenduen balorazioa
- VII. Hautaketa-prozesua gainditzea
- VIII. Karrerako funtzionarioak
- IX. Datu pertsonalen tratamendua

### **III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Kontseiluak bere txostenetan ikastetxeetako langileen egonkortasuna defendatu du, uste baitu beharrezkoa dela ikastetxeko hezkuntza-proiektuak eta ikastetxeak proposatzen dituen beste proiektu edo erronka batzuek aurrera egin dezaten, testuinguruaren eta ikasleek lortzen dituzten emaitzen arabera.

Oraingo honetan, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesu baten aurrean gaude, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen etenik gabe aldi baterako okupatutako plazetara mugatuta.

Kontseiluak, 22/08 Irizpenean, Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko eta Maisu-maistren Irakasleen Kidegoetan eta EAeko Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan (desagertzeaz dagoena) iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egiten duen Aginduaren proiektuaren aldeko txostena eman zuen. Proiektu hori irailaren 22ko Aginduaren bidez argitaratu zen.

Oraingo honetan, txanda irekiko 183 plaza atera dira lehiaketara, A taldeko A2 azpitaldekoak, horietatik 83 HE1 dutenak eta 100 HE2 dutenak.



Arau honek antzeko terminoetan jasotzen du aurreko prozesuan ezarritakoa, bai oinarrietan, bai merezimenduen baremoan.

Prozesu horrek, ziur aski, beste bi hautaketa-prozesurekin jarraituko du: oposizio-lehiaketa bat, abenduaren 28ko 20/21 Legearen 2.1 artikuluan aurreikusia, eta oposizio-lehiaketa arrunt bat, birjartze-tasatik eratorritako plazak betetzeko, eta Kontseilu honi berriro kontsulta egingo zaio.

**Kontseiluak ontzat jo du enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesu hori.**

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2022ko azaroaren 24an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA